

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Ospitaleguneak anestesia ondoko errekupezazio-unitatea estreinatu du, box gehiagorekin, eta pazienteen segurtasuna eta erosotasuna hobetuta

Dominguez kontseilaria gaur goizean egon da instalazio horiek ikusten, Virgen del Camino Ospitale zaharreko lehenengo solairuan, kirurgia-eremuaren ondoan.

Osteguna, 2017.eko apirilak 6

Nafarroako Ospitaleguneak anestesia ondoko errekupezaziorako unitate (AOEU) berria dauka Virgen del Camino Ospitale zaharrean; nabarmen handitu dute orain arteko espazioa, eta egindako egokitzapenekin, hobetu egin dira profesionalen lan-baldintzak eta pazienteen segurtasuna eta erosotasuna.



Dominguez kontseilariak gaur goizean bisitatu du Nafarroako Ospitaleguneako AOEU berria.

Fernando Dominguez Osasuneko kontseilaria gaur goizean egon da instalazioak ikusten; eraikin nagusiaren lehenengo solairuan daude, kirurgia-eremu berriaren, amentzako ebakuntza-gelen eta kirurgia handi anbulatorioko etorkizuneko unitatearen ondoan. Horrela, lekualdaketak azkarragoak izango dira, eta hobeto kontrolatuko dira zainketak. Dominguezekin batera egon dira Antonio Merino Nafarroako Ospitalegunearen kudeatzailea, Jon Ariceta kirurgiako zuzendariordea, Concepción Moreno kirurgia-prozesuetako zainketen eta baliabide materialen zuzendariordea, Miguel Salvador Anestesia zerbitzuko burua, Montse Diaz Kirurgia-multzoko Arloko burua, eta Cristina Arcaya anestesia eta erreakimazioko (II) erizaintza-unitateko burua.

15 box daude orain

Astelehenean jarriko dute martxan AOEU berria, eta 364 metro koadroko azalera dauka guztira; orain arteko instalazioek 224 metro koadroko azalera zuten. Gela nagusia esnatze-gela berria da, handiagoa, 229 metro koadrokoa; espazioa handitu izanari esker, aldi berean artatu



AOEU berria handiagoa da, eta pazienteentzako seguruagoa eta erosoagoa.

ahal izango dituzte paziente gehiago. 9 box zeuden lehen, eta 15 egongo dira aurrerantzean. Horrela, baldintzarik onenetan jasoko dute arreta pazienteek behar duten denbora guztia; hobetu egiten da era horretan beraien segurtasuna, baita eta ebakuntza ondoko egokitapena ere. Boxetako bat egoera berezietarako egokituta dago, pazientearen beharrek eskatzen dutenerako; pazienteak norbaitekin egoteko aukera izango dute eta, aldi berean, haien intimitatea zainduko da.

Halaber, botikak eta material suntsikorra gordetzeko 20 metro koadroko bi biltegi jarri dira, 35 metro koadroko bi aldagela, bi bulego, guardiako medikuentzako bi logela, lan-gela bat eta langileen atsedenerako eremu bat. Beste erabilera batzuetarako hiru lokal ere egokitu dira (lentzeria, material zikinerako lokala eta garbiketa-lokala).

Espazio berriarekin, sarbideak handiagoak dira, argiztapena hobea, ingurunea higienikoagoa garbitzeko errazagoa baita, eta espazio handiagoa dago lanerako; horrela, hobetu egin dira profesionalen lanerako baldintzak, eta ekipo ergonomikoagoak dituzte.

413.000 euro, ekipoak modernizatzeke

Ekipo teknologikoak modernizatzeke helburuz, 2016an ekipamendu elektro-medikoa eta orokorra erosi eta jarri zen; 413.000 euroko inbertsioa egin zen. Nabarmenezkoa da pazienteen monitorizazioko sistema zentralizatu berria jarri zela; horri esker, errazagoa da profesionalentzako pazienteei jarraipena egitea eta haien gaineko kontrola.

Beste elementu aipagarri batzuk dira oheburu berriak eta dorreak, sabaira lotutako instalazioak dituztenak, besoekin, monitoreen, ponpen eta ekipo elektro-medikoen euskarri gisa, ekografo bat, bi arnagailu eta taupada-markagailudun desfibriladore monitore bat.

Bestelako ekipamendua ere jarri da, hala nola anestesia- eta lan-orgak, biltegietako moduluko ekipamendua, aldageletako ekipamendua armairuekin eta sarraila elektronikoekin, etab.

5.400 paziente urtean

Anestesia ondoko errekupeziarako unitateak 5.400 paziente artatzen ditu batez beste urtean; ebakuntzen edo anestesia orokorrarekin, erregionalarekin edo sedazio sakonarekin egindako diagnostiko-edo terapia-prozeduren ondoren berehalako anestesia ondoko zainketak ematen ditu. Arreta jarraitua, espezializatua, integrala eta pertsonalizatua ematen zaie modu ambulatorioan edota larrialdi egoeran ospitaleratutako pazienteei.

Beste zerbitzu batzuekin koordinatuta, anestesia ondoko erreabilitaziorako unitatearen egitekoa da bizi-funtzioak egonkortzea eta mantentzea, ebakuntza ondoko mina kontrolatzea, pazientearen erosotasuna lortzea eta gerta daitezkeen zailtasunak garaiz antzematea.

Kirurgia multzo nagusiari, larrialdietakoei, amentzakoari eta brakiterapiakoari (erradioterapia), RNM eta pneumologiako kontsultari ematen die arreta. Hamar erizainek, erizaintzako laguntza-zainketetako zazpi teknikaririk eta zeladore batek osatzen dute unitateko lantaldea.